

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 173. alea - 2013ko apirila




**Arkaitz Astiazaran,  
altxor artean bizikletan**



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasia
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOIA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 486 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokasira, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

**JL**

Informatica Treneria Informaticas Elektronika Osagai elektronikak

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 86  
Mugikorra: 688 898 601

Maxpe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

e-mail: jl@informaticajlelektronika.e.telefonico.net

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afiariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)

Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**

Ezti photo

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

## OHARRA:

*Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.*

## ARGITARATZAILEAK



## LAGUNTZAILEAK




Debako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



# 10



# 15

**KORRIKA 18:**  
Ez zen makala izan Korrika 18k Deban utzitako arrastoa: Korrika Kulturala, Korrika Txikia, lekuko ofiziala eskuz esku... **7-8-9**

**KOLABORAZIOA:** Eider Zulaika, "Hau da gauza, hau!". **05**  
**ALBISTEA:** Erromesentzako aterpetxe berriaren obrak abiatu dituzte. **10** **BERRIKETAN** **GAZTEA:** Elkarrizketa Burdin Kurutz Mendi Taldeari, denbora-pasak... **11-14**  
**ELKARRIZKETA:** Arkaitz Astiazaran lasturtarraren egitasmo berria. **15** **LABURRAK:** Hemen da Kolore Anitz aisialdi taldea, Luzaroko irakasleen "Ostiral Beltzak", V. Deba-Itziar Xtreme Triatloia... **16-17** **ZERBITZUAK:** **18**



# 16

Ander Salegi



# 17



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra apirilaren 29an izango da

*Zuhatzakide* agurgarria:

Lerro hauen bitartez urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2012. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke. Batzarra datorren apirilaren 29an egingo dugu, arratsaldeko 19:00etan, Zuhatzaren bulegoan (Ifar kalea 12, behean). Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika

edo iradokizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83).

Batzarrean 2012ko gestio balantzea eta 2013rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko ditugu (betiko legez, galdera-erantzunen-tzako zein iradokizunentzako tartetik ere izango da).

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarte

bazkideen inplikazioa eta babes.

2012garrena urte oparoa izan da euskararentzat, eta hori denon borondateari esker lortu da. 2013an ere ildo beretik jarraitzeko asmoz, hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu!

Besterik gabe, apirilaren 29ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

*Zuhatza Euskara Elkarte*



Eibar



**Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra**

**ARTE BATXILERGOA**

**A eta D ereduetan**

**Elkartrukeak**

**Inglaterra - Alemania**

**Portaleako Erakusketa**

**Apirilak 12-28**



Jardifeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

# EIDER ZULAIKA

## HAU DA GAUZA, HAU!!

Hau da gauza, hau! Bai. Arnasa hartzen duten bitartean existitzen direla justu-justu dakigu, edo are okerrago; bizi zirenik ere ez genekien (aitortzeak lotsa ematen badit ere). Eta hil ondoren eginiko dokumental biografikoren batengatik, edo egunkariren bateko artikuluren baten eskutik jasotzen dugu pertsona "dohatsu" horien berri.

Egia da, bai. Aste honetan hirutan izan dut sentsazio hori gorputzean. Alegia, hil ondorenean eurak bizirik zeuden bitartean eginiko lanen eta burututako proiektuen berri izaten dugu. Honek interesa piztu eta interneten euren inguruko berriak bilatzen jarduten dugu.

Zalantza bera sortzen du nire buruan egoe-ra honek; derrigorra al da inor hiltzea, burutu duten lan eskergaren berri jende xehearengana iristeko? Galdera honen erantzuna jakin nahi ez dudanez, aurrera jarraitzera noa.

Kolaborazio honetan gai honi buruz idazteko arrazoia ez da izan lehen ministro kargua European izan zuen lehen emakumez-

koa hil izana. "Burdinazko dama" izenarekin ezagun izan dena, 70 eta 80. hamarkadan Erresuma Batuko herritarrek pairatu zuten aldaketen erantzule. Ez, ez da Margaret Thatcher izan bultzada eman didana.

Ezta ere, gerturago etorrita, "la mancha universal" deitu izan dutena isildu izana.

Nahiz eta "fumando espero..." kanta ezaguna entzuna izan, edo Hollywood-en ezaguna egin zen lehen artista espainola izan. Sara Montielen lorpen horiek ez ditut inola ere gutxiesten, baina...

Gai hau aukeratu izanaren arrazoia, Joxan Lizarribarren heriotza izan da. Egia aitortu behar badut, aipatu ditudan hiru horietatik aurrez entzuterik ez nuen bakarra izan da berau, lotsa ematen badit ere. 1970eko hamarkadatik izan zuen lotura euskal kulturarekin, eta BERRIaren sorrerarekin batera hartu zuen BERRIA Taldeko presidente kargua. Gizon honen izena ezagutzera ematea izan da nire intentzio xumea, hortik aurrerakoa norberaren esku dago...





Debako Gazte Asanblada

## TEILATUA

“Etxea oinarrietatik hasten da eraikitzen, ez teilatutik”. Maiz entzun dudan esamoldea da. Habeak, zutoinak, zutabeak, horma, paretak... denak datoz teiltuaren aurretik (azpitik, egia esan). Baina teiltuan amaitzen da etxea, teiltua ere etxearen parte da, ez badu haizeak eramaten. Izan ere, teilturik gabeko etxeak, etxe izateari uzten dio. Hormak beste bere du etxeak teiltua. Bere izatearen parte da.

Pertsona orok ere bere teiltua, bere hormak ditu. Gure mugak ditugu, bakoitzak bereak. Baina mugok ez dira finkoak, aldatuz doaz unetik unera, bat-batean, edo horren pauso txikiz aldaketaz ez konturatzeraino. Baina gehienetan, norberak ezartzen ditu geure irismena mugatzen duten hesiak. Eta maiz, beldur izaten gara horiek gainditu eta harago joateko. Ez dakit adinean aurrera joan ahala beldurra handitzen den, edo beldurrei aurre egiteko kemena itzaltzen doakigun.

Gazte Asanbladan, hormak, teiltua guk ezartzen ditugu. Geu gara geure muga. Etengabe zabalduz doazenak. Mugarik ez dugu, gu geu baino. Baina oinarriak ere behar dira mugak gainditzeko. Borondatea, konpromisoa, nahia, ame-

tsak, ilusioa. Hitz ederrak belarrira, borobilak oso. Baina hauek gabe, ezin deus eraiki. Ezin genezake deus sortu. Etengabeko berrikuntzari segi. Eta gaztaroa sormen garaia da.

Horretarako guztirako, teiltu baten behar-rean gaude, ordea. Paradoxikoa, agian. Baina azken hamar urte hauetan, Gaztetxearen teiltuak hainbat eta hainbat eurite, kazkabar, ekaitz, haize-te pairatu ditu. Ez da eraikin berria, esan beharrik ez da, eta teiltuaren konponketa, edo areago, teiltu berri bat, premiazkoa du. Badaramatza kontuak horrela zenbait urte. Gehiago izango ez direla espero dut nik, eta baita Gazte Asanbladak ere.

Ez dadila teiltua gure muga izan.

*Mattin Urbieta*



## XII. PLAZATIK GAZTETXERA

XII. Plazatik Gaztetxera badator. Apirilaren 26an (ostirala) ekingo diogu aurtengo txapelketari, 22:00etan, Debako Gaztetxean izango delarik

lehenengo saioa. Aurtengoan ere, iazko txapelketa moldeari jarraituko diogu, 16 bertsolari-bikotek ekingo diotelarik txapelketari.

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitsuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

# KORRIKA 18REN BUELTAN

Korrika 18 martxoan igaro zen herritik eta zaila egiten zaigu azaltzea ekimenak sortutako zirrara. Antolakuntza lanetan fin-fin ibili ginen herriko eragile zein norbanako euskaltzaleok, eta guztion elkarlanari esker lortu genuen Korrikaren edizio hau ere aurrera ateratzea. Eskerrik asko, beraz, Korrika Kulturalen parte hartutakoei, kilometro erosleei, korrikalariei eta lasterketari berotasuna ematen jardun zenuten guztioi!

Orain, euskararen zirrara horrek gure eguneroko bizitzan parte aktibo izaten jarraitu behar du. Deban ere, EMAN EUSKARA ELKARRI!



*Txiliku idazlearen “Piztiarioak”*

Korrika Kulturalaren baitan, J.M. Olaizola “Txiliku” idazlea Debako Kultur Elkartean izan genuen. “Piztiarioak” liburuaren nondik norakoak izan zituen hizpide idazleak, eta bestelako bitxikeri eta kondaira batzuk ere partekatu zituen bertaratutakoekin.

Liburuan berrogeita hamalau pizti daude, bi alfabeto osori lotuak. Lehenengo alfabetoko 27ak irudimenak sortutako animaliak dira, antzinako piztiarioetatik eta fantasiako liburuetatik ekarritakoak. Bigarren alfabetoko beste 27ak benetako animaliak dira, naturaren arauetara eta eboluzioaren bidera lerrotuak; arraroak dira, bai, baina benetakoak.

Liburu honek Deban du sortze-hasiera. Izan ere, 2009an liburu bat egin zuen idazleak Baroja Collet artistaren grabatuekin. Eta lan hartan omen dago “Piztiarioak” (Elkar) izeneko proiektu honen “hazia”.



*Txikienak, motorra berotzen...*









Argazkiak: Aritz Loiola

## Erromesentzako aterpetxe berriaren obrak abiatu dituzte

Gaur egungo Eusko Treneko geltokiaren lehen eta bigarren solairuak egokitzeko lanak berriki hasi dira. Eraikina Santiago Bideko erromesentzako aterpetxe berria izango da aurrerantzean, eta gaur egungo behin-behineko aterpetxeak ordezkatzeko ditu -orain arte Zumardikoak neguan ematen zien ostatu erromesei, eta Luzaro eskolakoak, berriz, uda partean-.

Debako Udalak, Debako Santiago Bideko Lagunen elkarteak eta Eusko Trenek 2010ean hitzarmen baten bidez adostu zuten geltokian aterpetxea egitea. Eraikineko lehen eta bigarren solairuak baliatuko dira horretarako -250 metro karratu dira guztira-. Aipatutako hitzarmenaren arabera, Udalak beregain hartu zuen proiektua erredaktatzeko eta obrak burutzeko ardura, baita finantziazioa ere. Azken arlo horretan Santiago Bideko elkarteak ere egingo du bere ekarpen ekonomikoa, eta aterpetxearen kudeaketa ere elkarteak eramango du aurrera.

Aterpetxea egokitzeko lanen aurrekontua 310.000 eurokoa da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 198.000 euroko diru-laguntza onartu zuen 2012. urte amaieran, eta Debako Udalak ere aurtengo aurrekontuan diru partida bat proiektu honetara bideratuko du. Dena den, Udalak eta Santiago Bideko elkarteak lanean jarraitzen dute bestelako diru-iturri batzuk lortu nahian.

### Iaz 6.800dik gora erromes izan ziren aterpetxeetan

Santiago Bideko Lagunen Elkarteak emandako datuen arabera, iaz 6.824 erromesek hartu zuten ostatu herrian horretarako egokitutako bi aterpetxeetan (2011n baino %9 gehiago). Horieta %53a atzerritarrak ziren -58 nazionalitate ezberdinetakoak-. Gainera, kontuan hartu behar da beste hainbat erromesek (800 batek gutxi gorabehera) aterpetxeak ez diren beste ostatu batzuen aldeko hautua egin zutela, herriko ekonomia sustatuz.

Gaur egungo behin-behineko aterpetean 12 boluntario aritzen dira lanean. Erromesek gau bakarra igarotzeko aukera izaten dute -betiere Done Jakue Bideko kredentziala erakutsita-. Debatik igarotzen diren erromesek Markinara arte-

ko ibilbidea egin ohi dute; 21 kilometroko mendi ibilbidea izaten da -oinez zein bizikletan burutu ohi dena- eta Santiago Bideko etaparik zailenatariko bat bezala dago katalogatuta.

Tren geltokian irekiko den aterpetxe berriak 56 plaza izango ditu guztira, hainbat gelatan banatutako literetan. Bi solairuetan izango ditu komunak, eta harraska zein egongela txiki bat ere atonduko dira. Ez du izango sukaldarik, ezta jangelarik ere; beraz, aurreikuspenen arabera, erromesek herriko ostalaritza establezimenduak baliatu beharko dituzte horretarako. Debako Santiago Bideko Lagunen elkartearen esanetan, "instalazio xumea izango da, ibiltarien oinarritzko beharrezanean erantzungo diena. Horrela, mantenimenduko gastu txikiak izango ditu".

### Zabalik 365 egunetan

Aterpetxe berria 2014rako egokituta egon beharko da. Urteko egun guztietan egongo da zabalik eta orain arteko funtzionamendu berbera edukiko du, boluntarioek kudeatuta. Santiago Bideko Lagunen elkartearen ustez, 2004. urtetik lortutako esperientziari esker, funtzionamendu, mantentze-lanak zein beharrezkoak izan litezkeen hobekuntza txikiak egiteko gastuak erromesek egindako

ekarpenekin ordaindu ahalko dira, aurreikuspenen arabera betiere.

Aterpetxe berria sortzeko jasoko diren diru-laguntzek aurrekontu orokorreko parte garrantzitsu bat osatuko dute. Hori hala izanik, elkarteak uste du Debatik egin beharreko ekarpen ekonomikoak oso txikiak izan beharko direla. Gainera, gogorarazi dute Debako herriarentzat garrantzi handia duela kostako bideak erakartzen duen bisitari kopuru altu honek. "Onura ekonomikoa garrantzitsua izateaz gain (jatetxe, taberna, denda, pentsio eta abarrentzat) ezin dugu ahaztu milaka bisitari horiek beraien jatorrizko herrietara bueltan, Debako herriaren izena munduan zehar zabal dezaketela. Gure herrialdea ezagutu, bertako jendearekin erlazioan eta oroitzapen on bat eramateko aukera izan dezakete".



**DENSPY IMPLANTS**

- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA

**NORA**  
**HORTZ KLINIKA**

Azpilgoeta 5  
Mendaro  
943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta aurrekontua doan.

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

Jarri zure publizitatea  
Berriekin aldizkarian!

**Zuhatz**

943 191 383  
berriekin@zuhatza.com



Berriketan gaztea

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua.  
2013ko apirila

## EUSKARAREN ALDE KORRIKA

Korrika euskararen alde Euskal Herrian zehar lasterka egiten den martxa da, arineketan egiten den manifestazio baten modukoa. AEK euskaltegi elkarteak antolatzen du. Bi urtez behin egin ohi da eta bi aste inguru behar izaten ditu lurralde guztia zeharkatzeko. Ibilbidea aldatu egiten da urtero, baina 2.500 kilometro ingurukoa izan ohi da beti. Irteten denetik amaitu artean, lekukoa eskutik eskura, herriz herri aldatzen joaten da, baina martxa ez da inoiz geratzen, ez gauzez eta ezta egoera klimatologiko txarrentatik ere.

Martxaren buruan, lekukoa duen pertsona joaten da. Kilometro guztietan, lekukoa erakunde edo pertsona zehatz batzuek eramaten dute. Erakunde edo pertsona horiek kilometroa "erosi" egiten dute, euskararen aldeko erakundea ekonomikoki laguntzeko. Lekukoa Korrikaren lehen ediziotik gordetzen den zur tailatuzko makila eta ikurrina dira.


Testiguaren atzean, martxaren burua osatzen da, eta urte bakoitzeko leloa dakarren pankarta ikus daiteke bertan. Pankarta horren atzean gainerako jendea biltzen da, musikarekin lasterka. Eta, ibilbide guztian zehar, ospakizun kultural ugari izaten da.

Aurtengoa 18. edizioa izan da; Korrika Andoaindik Baionara iritsi da eta **"Eman Euskara Elkarri"** izan da aurtengo ediziorako hautatu den leloa.

Jakingo duzuen bezala, aurten Debara martxoaren 23ko goizaldean iritsi zen Korrika. Mutrikutik etorri, Artzabalgo biribilgunea pasatu eta erdigunea zeharkatu zuen lehenbizi. Eta Itziar aldera jarraitu zuen gero bere bidea. Bederatziak aldera iritsi zen gurera larunbat goizean eta, betiko moduan, jende ugari egon zen zain, korrika egiteko prest.

Deba zeharkatzen ari zen bitartean, jende askoren eskuetatik pasa zen lekukoa eta gure institutuko ikasleen eskuetatik ere pasa zen, aurten 4. mailako ikasleek eraman baitute lekukoa.





# ELKA RRIZ KETA

## Burdin Kurutz Mendi Taldea



*Mendi taldeak antolatutako irteera baten irudia.*

### **Noiztik zabilzate zuek Burdin Kurutz Mendi Taldean sartuta?**

Orain dela hogeita hamar urte ingurutik. Taldea bost pertsonenek osatzen dute gaur egun. Luismari Olaizola lehendakariak, Alberto Gordoak, Anes Fernandez de Retanak, Itziar Altzibarrek eta Joxemari Altzibarrek.

### **Noiz sortu zen Burdin Kurutz Mendi Taldea?**

1951. urtean sortu zen Burdin Kurutz.

### **Zenbat mendi irteera egiten dira urtean?**

Nagusiekin hamaika eta ikasleekin, berriz, sei. Kurtsu amaieran Lasturrera egiten da mendi buelta, animatzen den guztientzako, Andutz eguna ospatzeko.

### **Zer adineko jendea joaten da irteeretara?**

Bost urtetik 15 urtera arteko ikasleak eta nagusiak, adin toperik gabe.

### **Ordaindu egin behar al da?**

Irteerak nagusiek bakarrik ordaintzen dituzte; bazkideek 12 euro eta bazkide ez direnek 14 euro.

### **Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Taldearen lehendabiziko helburua mendizaleei Euskal Herriko bazterrik politenak erakustea da. Bigarrena, mendizaletasuna bera bultzatzea. Hirugarrena, naturaz gozaten ikastea eta, azkenik, Burdin Kurutzeko harreman guztiak euskaraz egitea!

# ASTE SANTUA

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean Aste Santuari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Non pasa duzu Aste Santua?
- 2.- Norekin igaro duzu?
- 3.- Zer egin duzu?
- 4.- Nola pasa duzu?
- 5.- Gustatu al zaizu lekua? Zergatik?
- 6.- Bueltatzeko asmorik ba al duzu?



## Amaia Muguruza:

- 1.- Deban eta Azkoitian.
- 2.- Lagunekin eta familiarekin.
- 3.- Igerilekura joan naiz, lagunekin eta familiarekin jolastu, parranda bota lagunekin... *kar-kar!*
- 4.- Ederki.
- 5.- Bai, urtero joaten naiz, baina Deba nahiago dut.
- 6.- Bai, bertan familia dudalako.



## Ane Urkia:

- 1.- Amsterdamen.
- 2.- Familiarekin eta gurasoen kuadrilakoekin.
- 3.- Herria bisitatu dugu.
- 4.- Oso ondo pasa dut oporretan.
- 5.- Bai, asko gustatu zait, oso ondo pasa dudalako.
- 6.- Bai, berriz joango nintzateke.



## Izaro Altzibar:

- 1.- Peñiscolara.
- 2.- Aita, ama eta anaiekin.
- 3.- Peñiscola ezagutu dugu.
- 4.- Primeran.
- 5.- Bai, asko. Hondartzan oso ondo egoten zelako.
- 6.- Agian, beste opor batzuetan.



## Ibon Deba:

- 1.- Benidormen.
- 2.- Gurasoen kuadrilakoekin pasa dut Aste Santua.
- 3.- Benidorm ezagutu genuen eta bertan bueltatxo bat eman genuen.
- 4.- Pixka bat aspertu naiz.
- 5.- Bai, ez da esaten duten bezain zatarra.
- 6.- Zeba bai, *kar-kar*.



## Amaia Ajuriagoikoa:

- 1.- Parisen egon naiz.
- 2.- Nire izeba-osabekin.
- 3.- Paris ezagutu, Eiffel Dorrea eta antzekoak...
- 4.- Oso ongi pasatu dut, ederki.
- 5.- Bai, oso polita delako.
- 6.- Bai, gustatuko litzaidake.



## Maite Iglesias:

- 1.- Errioxan.
- 2.- Familiarekin.
- 3.- Bertan dugun etxean igaro ditut oporrak.
- 4.- Oso ondo.
- 5.- Bai, baina behin baino gehiagotan egon naiz bertan.
- 6.- Bai, bertan etxea dugulako.




## Beñat Eskudero:

- 1.- Madrilen egon naiz.
- 2.- Familiarekin.
- 3.- Madril pixka bat ezagutu.
- 4.- Ondo, oso gustura.
- 5.- Bai, oso polita iruditu zitzaidan.
- 6.- Ez, beste tokiren bat ezagutzera joango nintzateke.




## Andoni Garrido:

- 1.- Extremaduran.
- 2.- Familiarekin joan naiz.
- 3.- Lotan eta lagunekin jolasten aritu naiz.
- 4.- Ondo, "de lujo".
- 5.- Bai, ez duelako euririk egiten.
- 6.- Bai, urtero joaten naiz bertara.



# DenBord-pasaak

## ZENBAKIAK LOTU



## SUDOKU

	1	4				7	3
9		7	3	8	4		
			1	6	9		
				2	5	9	
6		8			1		4
	5	9	6				
		3	1	7			
		6	9	2	5		7
5	4				3		1

## 7 EZBERDINTASUNAK



EGILEAK: Alex Treku, Iker Leiro eta Aitor Gonzalez

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALERRA 2012-2013

Naia Orbegozo  
Maria Aizpurua  
Jon Yarza  
Iratz Fernandez  
Imanol Sobrado  
Jon Albizu

Aitor Gonzalez  
Alex Treku  
Ane Garcia  
Nora Mandiola  
Iker Leiro  
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Iraide Otazua

## Euskal Herriko txokorik ederrenak bi gurpilen gainean bisitatu nahi ditu Arkaitz Astiazaran lasturtarrak



Arkaitz Astiazaran lasturtarra betidanik izan da kirolzalea. Besteak beste, mendi lasterketetan buru-belarri aritu izan da eta azken hilabeteotan bizikleta gainean Euskal Herriko txoko bereziak

bisitatu ditu. Horren harira abiatu du, hain justu, Euskal Herriko Altxorretan Barrena izeneko egitasmo berria. Proiektu hori zertan datzan jakin nahian, 30 urteko kirolariarengana jo du *Berriketan*-ek.

### Euskal Herriko Altxorretan Barrena egitasmoa zertan datza?

Proiektuaren helburua garbia da: Euskal Herriko txokorik berezienetara zein ederrenetara bisita egitea, bi gurpilen gainean betiere. Horretarako, 37 etapako ibilbidea prestatu dut, 4.800 kilometro osatzeko. Guztira, zazpi probintzietako 800 herritatik pasako naiz eta 175 mendate igaroko ditut. Naturarekin bat egingo dugu, itsas mailan osatuko ditugu etapa batzuk eta 1.700 metroan ere ibiliko gara; mendi aldeko ikuspegiez, animalien gertutasunaz, paisaien aniztasunaz eta abarrez gozatuko dugu.

### Zer nolako herriak edo inguruneak igaroko dituzu?

Hiriburuetan zehar ibiliko gara, baina batez ere herri txiki eta lasaiak bisitatuko ditugu. Izan ere, altxor ugari ditu Euskal Herriak. Jendea gure herritik kanpora ateratzen da bizikletan ibiltzeko eta egoki ikusten dut hori, baina lehenengo hemengo bazterrak ezagutu behar direla uste dut. Aberastasun handia daukagu Euskal Herrian bertan, eta altxor guztiak ezagutzen saiatuko gara.

### Nolatan sartu zara abentura honetan?

Betidanik gustatu izan zait txirrindularitza eta etapen ibilbideen jarraipenak egitea, mendateen izenak, desnibelak, kokapen geografikoak... Hori guztia kontuan hartuta, erronka hau aurrera ateratzea bururatu zitzaidan. Aspalditik neukan buruan halako proiektu bat egitea, baina lana tarteko ezin izan dut ezer egin orain arte. Iritsi da garaia eta azkenean egitasmoa burutzen hasi naiz, ilusioz gainezka.

### Bakarrik arituko zara proiektuan?

Egitasmoa parte-hartzailea izatea nahi dut. Webgune bat daukat <http://euskalaltxorretanbarrena.wordpress.com/>, eta bertan ibilbide bakoitza noiz burutuko dudana jarriko dut (egun batzuetako aurrerapenarekin) eta burututako etapen xehetasunak ere kontatuko ditut. Horrela, ibilbide edo etapa bakarra, edo etapa erdia, egin nahi dutenek ere parte hartzeko aukera izango dute egitasmoan. Hori bai, gauak igarotzeko norberak pentsatu beharko du nola moldatu.

### Apirilaren hasieran abiatu duzu ibilbidea. Noiz arte jardungo duzu bizikleta gainean?

Ekainaren hasierarako burutu nahiko nituzke 37 etapak. Kontua da eguraldiak ere lagundu beharko duela eta, noski, baita nire egoera fisikoak ere.

### Prestakuntza fisiko jakin bat behar da halako proiektu bat burutzeko?

Beno, etapa guztiak aurreikusitako denbora-tartean egin ahal izateko baiezkoan nago. Baina ibilbideak erritmo lasaian burutu nahi ditut, paisaiaz eta txirrinduarz gozatu ahal izateko.

### Bizikletan ibili eta paisaiak ezagutuko dituzu eta webgunean jarraitu ahalko da zure abentura. Behin ibilbidea burututa, zer asmo?

Bidaia honetan hartutako irudiekin bideo dokumental bat plazaratu nahi nuke, ondoren kultur etxeetan emanaldiak eskaintzeko, jendeak hobeto ezagutu dituzan Euskal Herriko altxorrrak. Irudi eta grabazioak nik neuk egingo ditut, ibilbidean nire kabuz moldatu nahi dut eta. Bestetik, liburu bat egiteko asmoa ere badaukagu.

### Nola jar daiteke bat zurekin kontaktuan?

Egitasmo honen webgune nagusia <http://euskalaltxorretanbarrena.wordpress.com/> da. Horrez gain, [altxorbai@hotmail.com](mailto:altxorbai@hotmail.com) helbidera idatziz edo 616 86 28 67 telefono zenbakira deituta ere lokalizatuko gaituzue.

### Beste zerbait nabarmendu nahiko zenuke?

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet Orbeari, Zarauzko Zaindu kirol medikuntza zentroari eta Eztiphoto ekoiztetxeari, proiektu honetarako eman didaten laguntzaren gatik. Baina gogorarazi nahi nuke finantzaketa kanpaina bat ere abiatuko dugula, egitasmoaren gastuei (bidaia bera, bideo-dokumentalaren produkzioa, liburua...) aurre egin nahian. Nahi duten pertsonak, enpresek edo elkarteek beren ekarpena egin dezakete, betiere laguntza horren truke zerbait jasota. Ateak zabalik daude, eta xehetasun guztiak webgunean jasota daude.

## Hemen da Kolore Anitz!!



Ander Salegi

Azkenaldian jendearen ahotan bolo-bolo dabilen aisialdi talde berria gara! Jakingo duzuen bezala, Zuhatzaren baitan sortutako taldea gara eta orain dela gutxi proiektu bat aurkeztu genuen Udalean, Debako haur, gazte eta helduentzako urte guztirako proposamen aberats eta anitzarekin. Proiektu honetan udako udalekuak, udaleku ibiltaria (Deba, Itziar eta Lasturretik ibiliko dena), inauteriak, gabonetako ekintzak... aurrera eramatea da gure helburua eta hori guztia aurrera eramateko gogo eta ilusio handiarekin gaude!!

Horren harira, idatzi honen bitartez adierazi nahi dizuegu uda honetako Euskal Udalekuak guk eraman nahi ditugula aurrera!!

Era berean, **KOLORE ANITZ EGUNA** ere prestatzen ari gara, maiatzaren 4an (larunbatean) izango dena, eta bertan ume, guraso, gazte eta helduekin ekintza ezberdinez bateriko eguna ospatuko dugu!!

Beraz, adi egon, hurrengo egunetan gure berri izango duzue eta!!

*Kolore Anitz*

## 197/2006 Doktrina hizpide

Debako Herrira bilguneak antolatuta, pasa den martxoaren 15ean 197/2006 Doktrinaren inguruko hitzaldia egin zen Agirre Jauregian eta bertan izan ziren Beñat Zarrabeitia Herrirako kidea, Ainhoa Baglietto abokatua eta Kandido Zubikarai Ondarroako preso politikoa ohia.

Hitzaldira bertaratutako lagunek Doktrinaren inguruko azalpenak entzun eta beren zalantzak argitzeko aukera izan zuten. Horrez gain, Doktrinaren aplikazioak urte luzez espetxean egon ondoren kaleratzearen den preso bati zein haien ingurukoei eragiten dizkien sentimenduak lehenengo pertsonan entzuteko aukera ere izan zuten. Debako Herrirako kideek gogorazi zuten, "Parot Doktrinak 73 euskal preso politikoa kolpatzen ditu, hauen arteko batzuek 20, 25 eta 30 urte ere eman dituzte espetxean, eta berauen artean ditugu Juan Mari Gabirondo, Jokin Urain eta Jose Mari Beristain herritarrak ere".



## Sorturen aurkezpen afaria



Apirilaren 26an (ostirala), Debako Sorturen aurkezpen afaria egingo dugu. Hainbat hilabetez, Sortzaile prozesua martxan izan dugu herrian. Bertan ezker abertzaleko erreferente politikoa berriaren ezaugarriak eztabaidatu eta erabaki ditugu. Honekin batera, herritik hasi eta Euskal Herri mailarainoko gure ordezkariak aukeratu ditugu. Amaitzeko, otsailean Iruñean ospatutako Kongresuan, herrietan eztabaidatutakoak berretsiak izan dira eta martxan dugu Sortu Euskal Herri osoan. Deban, askapen nazionala eta eraldaketa sozialaren erreferente izateko jaio da Sortu eta lan honetan murgilduta gaude jadanik udalean zein kalean lan eginez. Beraz, ezkertiar eta abertzale oro gonbidatzen dugu Sorturen herri taldea aurkeztu eta gure lan lerroak aurkezteko antolatutako dugun afarira.

## Baserri-paisaien balioak agerian jarri nahian

Baserri-paisaien elementu bereizgarriak kontserbatu eta haien balioa agerian jartzeko ekintza aproposenak zeintzuk diren identifikatu nahi ditu Debemenek, eta horretarako, batzar bat antolatu du Elgoibarren. Apirilaren 24an izango da batzarra (19:00-21:00), Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Saio irekia izango da, baina bertan parte hartu nahi duenak aldeztu aurretik eman beharko du izena [paisaia.atl@paisaia.com](mailto:paisaia.atl@paisaia.com) helbidera idatzita edo 686 738 152 / 943 335048 telefono zenbakietara deituta.

Debemen, Debabarreneko Landa Garapen Elkarte, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste zortzi Landa Garapen Elkarterekin batera iaztik dabil murgilduta landa-paisaia atlantikoaren balioa agerian jartzeko ekimenean. Eskualdeka, baserri-paisaiek dituzten elementu bereizgarriak aztertze-ko eta horien erronkak identifikatzeko parte-hartze saio irekiak burutu zituzten iazko irailean. Eta, orain, beste urrats bat eman nahian, elementu bereizgarriak kontserbatu zein baserri-paisaien balioa agerian jartzeko ekintza aproposenak identifikatzeko saioa burutuko da.



## Ekingune elkarte sortu dute eskualdean

Enpresa sortu berrien beharrezanean erantzuna emateko asmoz sortu berri da Ekingune elkarte. Elkartearen helburua Debabarrenako pertsona ekintzaileen artean kooperazioa eta elkarlana sustatzea eta beraien interes ekonomikoak eta sozialak defendatzea da. Elkarte pribatua, independentea eta sektore anitzekoa da Ekingune eta ez du irabazi asmorik. Elkartearen jarduna ekintzailea den pertsona fisiko edo juridiko orori, eskualdeko enpresa eremuan benetako interesa duen orori, eta Jarduera Ekonomikoaren Zergaren erroldan, gehienez, bost urteko antzinasuna duen orori zuzenduta dago. Informazio gehiago nahi duenak [www.ekingune.com](http://www.ekingune.com)-era jo dezake.





## LOMCE eta murrizketen aurkako "Ostiral Beltzak"

Luzaro ikastetxeko irakasleak *Ostiral Beltzak* antolatzen hasi dira, "guztiona den hezkuntza publikoan murrizketak eta inposaketak" jasaten ari direla salatzen helburuarekin (LOMCE lege berria, ikasle gehiago eta laguntza gutxiago gela bakoitzean, bajen aurrean ordezkapenik ez...). Irakasleek azaldu duten bezalaxe, "beltzez jantzita, gure hezkuntza publikoan hainbeste urte eta gero lortutako hezkuntza kalitatea galbidera" daramatela salatu nahi dute. Horrez gain, jakinarazi dute "guztion artean gure desadostasuna erakusteko eta honi guztiari EZETZ esateko", ostiralero, Foruen plazan (Udaletxe plazan) elkarretaratzeak hasi direla egiten, goizeko 9:00etatik 9:15era, guraso eta herritarrekin batera.



## V. Deba-Itziar Xtreme Triatloia ospatuko da maiatzaren 11n

Maiatzaren 11n ospatuko da Deba-Itziar Xtreme Triatloia bosgarren edizioa eta Euskadiko txapelketa izango da sprint distantzian. Lehenengo saioa **Igeriketari** dagokiona izango da, eta hondartzan emango zaio hasiera, itsasbehera izango dela kontuan hartuta. Guztira 750 metro egin beharko dituzte parte-hartzaileek -hondartzan hasi, itsaso zabalean itzulia egin eta buelta-. Hondarretan 200 metroko lasterketa egin beharko dute uretan sartu aurretik. Irteera hondartzan bertan emango zaio saioari, horretarako propio jarriko den zinta baten atzean. Emakumeen irteera 11:00etan izango da eta gizonezkoena, berriz, 11:15ean.

**Txirrinduan** egin beharreko ibilbideak 30 kilometro izango ditu; lehenbiziko bederatzi kilometroak lauak izango dira, Mendarora bidean, han itzulia eman eta Sasiolako bidegurutzetik Lasturko bailaratik barrena sartuko dira parte-har-

tzaileak. Txapasta gaina pasa ostean, zortzi kilometroko jaitsiera egingo dute, hondartzako bidegurutzea hartu eta boxetara joateko ondoren.

**Korrika** egin beharreko ibilbideak 5,2 kilometro inguru izango ditu aurrean. Antolatzaileek azaldu dute itzuli gunean zegoen aldapa ibilbidetik kendu egin dutela, lesio arrisku eta arazo posibleak ekiditeko. Dena den, beste gehigarri bat jarri diote zubi inguruan. Bi itzuli egin beharko dituzte kirolariek.



Ander Salegi

Kirol proban triatleta federatuek nahiz popularrek parte hartu dezakete (azken horiek eguneko aseguru ordainduta). Antolatzaileek aurreratu dutenez, "maila handiko jendea" izango da bertan, Nicholas Kastelein pro australiarra tartean. Xehetasun guztien berri izateko, kontsultatu [www.debakotri.blogspot.com.es](http://www.debakotri.blogspot.com.es) edota [www.triatloi.org](http://www.triatloi.org) webgunea.

# Gure eskaintza, zure aukera!!

Batxillerrak (Selektibitateko aukera guztiak)

Heziketa zikloak

- \* *Administrarritza eta Finantzak*
- \* *Sistema elektroteknikoak*
- \* *Akuakultura*

Sarbide Froga prestatzeko ikastaroa



943-603545 ext 310

[idazkaritza@mutrikubhi.net](mailto:idazkaritza@mutrikubhi.net)

**Aurre-matrikula epea:**

- Batxiller: maiatzaren 2tik-14ra
- Zikloak: maiatzaren 27tik



## Agenda

**Apirilak 24, asteazkena**

-19:00. **Baserri-paisaien balioa aztergai.** Debemenek eskualde mailan antolatutako saioa, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Informazio gehiago: aldizkari honetako 17. orrialdean.

**Apirilak 26, ostirala**

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoaren aldeko mobilizazioa plazan, Herrira mugimenduak deituta.  
-22:00. **Plazatik Gaztetxera.** Bertso saioa, Gaztetxean.  
-21:30. **Debako Sorturen aurkezpen afaria.**

**Apirilak 27 eta 28**

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako **bisita gidatuak** burutuko dira. Informazioa: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com).

**Apirilak 28, igandea**

-Kadete mailako **txirrindularitza lasterketa**, Debako Amaiak Bat Txirrindularitza taldeak antolatuta.

**Apirilak 29, astelehena**

-19:00. **Zuhatzza Euskara Elkartearen batzar orokorra**, Ifar kaleko bulegoan.

**Maiatzak 1, asteazkena**

-Langileen Nazioarteko Eguna.

**Maiatzak 4, larunbata**

-Erromeria Eguna Itziarren.

**Maiatzak 5, igandea**

-10:30. "Artzain Txikiak" antzinako baserri mundura hurbiltzeko egitasmoa, Lasturko plazan. Informazioa eta izen-emaitea: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) edo Debako Turismo Bulegoan.

**Maiatzak 11, larunbata**

-11:00. **Deba-Itziar Xtreme Triatloia.** Informazio gehiago: aldizkari honetako 16. orrialdean.

**Maiatzak 17-18-19**

-Debarren Eguna. Egitarau berezia antolatuko da.

## 50 EROSKETA-ORGA ZOZKETAN

**DEBALAI ELKARTEAK** edota kontsumituz gero, berrogeita hamar erosketakarro zozketatuko ditu. Apirilaren 15etik 29a bitartean, elkarteko edozein establezimendutan erosi edota kontsumituz gero, zozketan parte hartzeko aukera dute herritarrek. Zozketa Debako Turismo Bulegoan egingo da, apirilaren 30ean.


KOLORE ANITZ EGUNA  
maiatzaren 4an

-10:30ean Mezu Ezkutuaren Bila jolas erraldoia (guraso eta haurrentzat). Foruen plazan.

-13:00etan pasta lehiaketa.

-16:00etan Twister erraldoia, Kafe Frantses Baten eta sari banaketa.

-18:00etan erromeria Ezten Giro taldearekin, Gaztetxean.



*Animatu eta parte hartu!*

## Merkatu txikia

Maiatzaren 4an **Merkatu Txikia** egingo da, estalitako pasealekuan. Goizeko 10:00etatik 13:30era, bertako ekoizleek salmenta puntua jarriko dute, eurek ekoiztutako produktuak zuzenean saltzeko. Azarora bitartean, hileko lehen larunbatetan burutuko da Merkatu Txikia.



Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.**

Burgoa Zuazo: **apirilak 29, 30.**  
**maiatzak 1, 2, 17, 18, 19.**

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 4 eta 11

BURGOA ZUAZO: apirilak 27

maiatzak 18 eta 25

9:30 - 13:30



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



## ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA  
943 029 186

### JAZKUNE

FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

## LENTZERIA

# Azoka

## MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

## Zugandik ZUGANA

## haizea

estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

## BURU - ZURI

Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

## Kafetegia

## Foruen Plaza

Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## Calbeton

JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## L.A.

### LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# Elgoibar Arreiturre BHI 2013-2014 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI  
Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: [013431aa@hezkontza.net](mailto:013431aa@hezkontza.net)  
[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)

**BATXILERREKO ESKAINTZA**

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA**

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

**HUMANITATEAK ETA**

**GIZARTE ZIENTZIAK**

Gizarte zientziak

Humanitateak

**AURREMATRIKULAKO DATAK:**

**MAIATZAREN 2TIK 14RA**

Gurasoentzako bilera irekia:  
apirilaren 25ean, arratsaldeko 18:30ean Mendata ikastetxean.

